

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

6/2020 Foru Araua, maiatzaren 20koa, apirilaren 21eko 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak

Arabako Batzar Nagusiek, 2012ko maiatzaren 20an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

6/2020 Foru Araua, maiatzaren 20koa, apirilaren 21eko 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko dena, onesteko premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak.

HITZAURREA

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak –Arabako Zerga Orokorrari buruzkoa- 8. artikuluan baimendutakoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluak onartu du, presazko arrazoiak direla-eta, apirilaren 21eko 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, onesteko premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak.

Aipaturiko 8. artikulua 2. apartatuan ezartzen du, xedapen orokor horiek Batzar Nagusiek baliozkotu edo indargabetu behar dutela indarrean dauden arauen arabera.

Tramite hori eginda, Batzar Nagusietako Osoko Bilkurak baliozkotze akordioa hartuta eta 2013ko apirilaren 22ko Arabako Batzar Nagusietako funtzionamendu araudia aldatzeko 17/2013 Foru Arauaren 147. artikulua arabera, bidezkoa da aipatutako Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko foru araua ematea.

ARTIKULU BAKARRA. Baliozkotuta geratu da 4/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, apirilaren 21ekoa, onesteko premiazko neurriak hauen gaineko zergetan, COVID-19ren eragin ekonomikoari aurre egiteko: balio erantsia, zerga bereziak eta ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 20a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA